

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

BIDE AZPIEGITUREN ETA MUGIKORTASUNAREN SAILA

“Dulantziko ur biltegia eraitsi eta berria eraikitzeko proiektua”k eragindako ondasun eta eskubideen zerrendaren jendaurreko informazioa

Foru Gobernu Kontseiluaren 2019ko ekainaren 18ko 399/2019 Erabakiaren bidez, “Dulantziko ur biltegia eraitsi eta berria eraikitzeko proiektua”k eragindako ondasun eta eskubideen zerrendari hasierako onarpena eman zaio.

Hori dela eta, indarrean dagoen Nahitaezko desjabetzearen Legeak 17. eta 18. artikuluetan eta lege hori garatzen duen Arautegiak 17. artikuluan ezarritakoaren babespean, aipatutako zerrenda jendaurrean jarriko da 15 egun balioduneko epean, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Epe horren barruan, argitaratutako zerrendan izan litezkeen akatsak zuzentzeko datu egokiak idatziz aurkeztu ahal izango ditu edonork, edo okupatu beharraren aurka ere agertu ahal izango da, funtseko nahiz formako arrazoiengatik. Azken kasu honetan, adierazi beharko du zergatik jotzen duen egokiagotzat, lortu nahi den helbururako, azaldutako zerrendan jasotzen ez diren beste ondasun batzuk okupatzea edo beste eskubide batzuk eskuratzea.

Interesaturik dauden erakunde, entitate, korporazio nahiz partikularrek eskuragarri dituzte lurzatiaren planoak eta eragindako titularren zerrenda Alegria-Dulantziko Udaletxeko ediktu taulan eta Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Kalitatearen Zerbitzuan, horiek aztertu eta, bidezko izanez gero, alegazioak egin ahal izateko. Alegazioak, ezarritako epearen barruan aurkeztu beharko dituzte, ale bikoitzez, Foru Aldundi honetako Erregistro Orokorrean, bulego orduetan, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailaren Lege eta Administrazio Zerbitzuari zuzenduta (Probintzia Plaza 4 6. solairua, 01001 Vitoria-Gasteiz.)

Vitoria-Gasteiz, 2019ko uztailaren 3a

Lege eta Administrazio Zerbitzuaren burua
JON ARREGUI LACUESTA

DULANTZKO UR BELTZA ERAMTSI ETA BERRIA ERAMITZEKO PROIEKTUA
 PROYECTO DE DERIVACION Y NUEVA CONSTRUCCION DE DEPOSITO DE AGUA EN ALEGRIA-DULANTZI

FINKAREN ZK.	TITULARRAREN IZENA	KATASTROKO DATUAK		UDALERRIA	APROBETZAMENDUA	ERAGINDAKO ONDASUNA	ERAGINDAKO AZALERA m ²		Esp./Espe. 2019/10
		POLIGONO	PARCELA				BEHINBEITIKOA	ALDI BATERAKOA	
Nº FINCA	NOMBRE DEL TITULAR	DATOS CATASTRALES	PARCELA	TERMINO MUNICIPAL	APROVECHAMIENTO	BIEN AFECTADO	DEFINITIVA	SUPERFICIE AFECTADA m ²	SERVIDUMBRE
1/000	LUIS BANEZ DE OPACUA SAEZ DE ELBURGO	1	372	ALEGRIA-DULANTZI	LABORE UREZTATUA / TERRA DE LABOR REGADO		736		
2/000	PEDRO RUIZ DE ARGANDOÑA VILAR JOSEFINA MORILLAS GARCIA	1	371	ALEGRIA-DULANTZI	LABORE UREZTATUA / TERRA DE LABOR REGADO		24		
3/000	CONSORCIO DE AGUAS DE LA LLANADA-SIERRA DE ELGUEA	1	1262	ALEGRIA-DULANTZI	LABORE UREZTATUA / TERRA DE LABOR REGADO		1422		